

NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
EUSKARA ZERBITZUA

**NAFARROAKO IPARRALDEKO EUSKARA MANKOMUNITATEA
BATZAR OROKORRA**

2025eko azaroaren 12an arratsaldeko 18:30etan Leitzako Udaletxeko Batzar Aretoan, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Batzar Orokorra bildu da, Aintzane Arraiza Nafarroko Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakari zapean.

BERTARATUAK

Bitorio Lizartza Leitzako udaleko ordezkaria
Joseba Altzelluts Larraungo udaleko ordezkaria
Josu Larretxea Ultzamako udaleko ordezkaria
Izaskun Anduaga Ultzamako udaleko ordezkaria
Asier Arsuaga Araitzko udaleko ordezkaria
Ane Oyartzun Odietako udaleko ordezkaria
Maider Amategi Leitzako udaleko ordezkaria
Igor Otermin Beteluko udaleko ordezkaria
Xabier Iturriotz Imotzko udaleko ordezkaria

IDAZKARIA: Lucia Beloqui Iriarte.

GAI ZERRENDAA

1.- Azken batzarreko akta onartzea.

Lehendakariak aipatzen du deialdiarekin batera bidali zela aurreko batzarreko akta, 2025eko uztailaren 23an egindako batzarreko akta, eragozpenen bat dagoen galdetzen du eta bildutakoek aho batez onartzen dute bildutakoek, denen baiezkotzarekin.

2.- 2026ko aurrekontua. Hasierako onespenera.

Lehendakariak adierazten du 2026ko aurrekontuan dauden aldaketa garrantzitsuenak direla alde batetik, teknikarien bulegoko ordenagailuen aldaketa, windows-en eguneraketak ez daudelako jada, bestetik bertso eskolaren kostua igoko dela kontutan hartuta bai Leitzan bai Ultzaman bi talde gehiago sortu direla eta talde bakoitzaren gastua 1.000 euro inguruko dela, hortaz 2026. Urteko gastua bikoiztuko da.

Falta dira behin betiko onespenerako hainbat kopuru zehaztea, hots euskaltegien ekarpena, hurrengo astean bilera izango du lehendakariak haiekin, ikasturteko matrikulen inguruan hitz egiteko eta bertan zehaztuko dira 2026. Urteko ekarpenak.

Ordenagailuen aldaketaren inguruan bai Igor Oterminek bai Joseba Artzelluts-en adierazten dute aukera dagoela office libreko sistemak jartzea ordenagailuetan, horrela urteko baimenak ez lirateke ordaindu beharko ere. Gainera Joseba Artzelluts-ek azaltzen du bigarren eskuko ordenagailu berriak erosi ahal direla ere oso prezio honetan egoten direla eta norbanak nahi duen sistema operatiboa eta disko gogorra aukeratu ahal ditu.

Joseba Artzelluts-ek adierazten du ere Larraungo euskara teknikariaren portatila hartu zuela eta hobetu duela azkenaldian sistema moteldu zelako..

Aztertuko du ere Ainhoa Berazarekin bulegoko mahai gaineko ordenagailua ea berria erosi beharrean hobetu ahal den.

3.- IKA euskaltegiaren eskaera.

Lehendakariak irakurtzen du IKA euskaltegiak egin duen eskaera. Azaltzen du Euskarabideak aurten onartu duela euskararen ikasketak doakoak izatea A1 eta A2 mailetarako, horretarako ikasleek noski diru laguntza eskaera izapidetu behar dute. Hala eta guztiz ere IKA euskaltegiak adierazi du, badagoela ikasle profil bat arazoak izaten dituela matrikula ordaindu ahal izateko hortaz eskatzen dio mankomunitateari matrikula ordaintzeko aurrerapena egitea ikasle hauei, ondoren Euskarabideko laguntza jasotzen denean aurrerapen hori bueltatzeko baldintzarekin.

Proposamen hau lehendakariak bildutakoek luzatzen die. Bildutakoek honen inguruan hitz egin ondoren, ontzat ematen dute.

Hortaz bildutakoek aho batez erabakitzen dute, IKA euskaltegiak egindako proposamena onartzea eta hortaz euskaltegiarekin sinatzea hitzarmen bat non aurreratzen zaion euskaltegiari haiek adierazten duten ikasleen matrikula eta Nafar Gobernuak laguntza kobratzen dutenean euskaltegiak mankomunitateari bueltatuko dion aurrerapena. Proposamen hau AEK euskaltegiari egitea ere onartzen dute bildutakoek.

4.- Batuz Aldatu ituna.

Lehendakariak azaltzen ditu Batuz Aldatu ekimenaren nondik norakoak, egitasmoaren ildo nagusia euskararen normalizazio- eta biziberritze- prozesuan aurrera eramatea, Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskarari etorkizun duina ematea, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta, horrenbestez, justizia sozialean, gizarte kohesioan, bizikidetzan eta askatasunean sakontzea.

Bildutakoek aho batez, irakurrita deialdiarekin batera bidalitako itunaren dokumentazioa, onartzen dute Batuz Aldatu itunari atxikitzea eta erabaki hau jakinaraztea egitasmoaz arduratzen den kontseiluari web orriaren bitartez.

5.-Bertsozale elkartearekin hitzarmena.

Lehendakariak azaltzen du urtero bertso eskolaren egitasmoa aurrera eman dela hainbat eskoletan. Azkeneko urtetan Leitza eta Ultzamako eskoletan burutu dira. Aurten gainera bi talde sortu dira. Honek urteko aurrekontua igoko du eta urteroko egitasmoa denez Bertsolaritza Elkartearekin hitzarmena sinatzearen proposamena. Horrela urtero

lotuko da ekimena eta zehaztuko da urteroko gastua. Bildutakoek ontzat ematen dute hitzarmena sinatzearen proposamena, hitzarmen hau urtero eguneratu eta sinatuko da.

6.- Ultzamaldeko euskara teknikariaren lanpostua betetzea.

Lehendakariak gogoratzen die bildutakoei Ultzamaldeko euskara teknikariaren lanpostua egonkortu zela eta ondoren kontratu erreleboa hartu zuela. Berez erretiroaren data 2026ko apirilean dauka eta orduan lanpostua hutsik gelditzen denez, lanpostua betetzeko prozesua hasi behar da.

Prozesu hori arautuko duen araudia, hots oinarriak Larraungo teknikariarekin batera prestatu dira eta balorazio mahaiko kide batzuk ere zehaztu dira, hot Larraungo eta Bortziriko Mankomunitateko teknikariak eta Tafallako udaleko teknikariek alde batetik eta bestetik mankomunitateko lehendakaria eta beste hiru ordezkari izandatzeko.

Bildutakoek adosten dute hortaz mahaikide izatea Izaskun Anduaga alde batetik eta honen ordezkoa Josu Larretxea eta lehendakariaren ordezkoa Asier Arsuaga.

Idazkariak aipatzen du Ultzamako teknikariak jaso zuen oker Ultzamako ordezkariarekin batera mankomunitateko bilera deialdia eta dokumentazioa. Dokumentazio horretan zegoen ere lanpostuaren deialdia eta izapidetzearen egutegia, hots alde aurretik informazioa jaso du deialdia arautuko duen oinarriekin eta egutegiarekin. Idazkariak gai hau Larraungo euskara teknikariarekin aztertu du eta biek ondorioztatu dute egia dela alde aurretik daukala informazioa baina publikoki argitaratuko dela deialdia hortaz inork ez badu horren berri izaten eta helegitea jartzen ezin dela besterik egin. Norbaitek helegitea jarriko balu mankomunitateak hartuko du beharrezkoa den erabakia.

Hortaz alde batetik bildutakoek erabaki dute aho batez onartzea Ultzamaldeko euskara teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia eta honen oinarriak eta bestetik izendatzea balorazio mahairen osatzea hau izatea:

–Burutza: Aintzane Arraiza, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Lehendakaria.

–Ordezkoa: Asier Arsuaga, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakariordea.

–Mahaikidea: Izaskun Anduaga, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatekoordezkaria.

–Ordezkoa: Jou Larretxea, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko ordezkaria

–Mahaikidea: Patri Arburua Etxeberria, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak izendatutako euskara teknikaria.

–Ordezkoa: Castillo Suárez, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak izendatutako euskara teknikaria.

–Mahaikidea: Aana Flamarique, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak izendatutako euskara teknikaria.

–Ordezkoa: Ana Errondosoro, Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartek izendatutako euskara teknikaria.

–Idazkaria: Lucia Beloqui Iriarte, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko idazkaria. Hitza izango du, baina ez boto eskubidea.

–Ordezkoa: Ainhoa Beraza Elizondo, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateko Euskara Teknikaria.

7- Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Lehendakariak 11-13 ebazpenen berri ematen du.

11 ebazpena ikasleen urteko beken onespena onartzen duena, 12 ebazpena euskaltegien diru laguntza eta 13. Ebazpena udalekuek joan diren ikasleendako dirulaguntza.

8- Oharrak eta berriemateak.

Lehendakariak adierazten du ez duela berririk emateko.

9.- Eskariak eta galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez eta arratsaldeko 19:35 direnean bilera amaitutzat ematen du lehendakariak, eta idazkariak hala ziurtatzen du.